

langile ekin

2008 · BILBO
azaroak 26-27 noviembre

Ponentziaren aurkezpena

Adolfo "Txiki" Muñoz



12.
kongresua

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Ponentziaren aurkezpena (Txiki)

Kongresu-kideok, ELAko lagunok, gainerako adiskideok

Nazio Batzordeak, ponentzia egiterakoan, ikusitakoak eta egindakoak jarri nahi izan ditu abiapuntu. Praxi sindikaletik etorritako hausnarketa egin nahi izan du, hautu erreibindikatioa egiten duen sindikatu baten bizitza oso aberatsa delako.

Nazio Batzordeak ekainaren 16an onartu zuen ponentzia. Irailaren 8tik azaroaren 9ra 2.300 delegatu baino gehiagok parte hartu du ikastaroetan.

Hilabeteotan ere delegatuek zuzenketak egiteko aukera izan duzue.

Egiaztapen nagusia]

Ponentzia egiaztapen batetik abiatzen da: demokrazia ahultzen ari da neoliberalismoaren programa azken muturreraino eraman ahal izateko. Horren adibide garbiak ditugu lan harremanetan eta negoziatio kolektiboan; baita politika publikoetan ere; eta nola ez, gure auzi nazionalen. Euskal Herrian zein nazioartean.

Nazioartea

Neoliberalak amorru handiz ari dira ahalik eta kapital akumulazio handiena lortzeko asmoan: pribatizazioekin, merkatuen erregulazioen aurka, lan- eta gizarte-eskubideen aurka...

Reagan eta Thatcherrekin hasi zen ofentsiba hau oso fundamentalista da. Friedman bezalako ekonomilariengatik hartu dute inspirazioa. Horrek esandakoa da, adibidez, honako hau:

"El mundo es hoy más rico. Se debe a que cuenta con un motor eficaz: el capitalismo y la libre empresa, y con un potente carburante: el beneficio privado. Cuanto más beneficio privado se consiga mayores serán los logros del sistema. Pues bien, librémonos de los impuestos, de todos los obstáculos para el mercado como son los servicios públicos y de la Seguridad Social, y de las múltiples reglas que limitan la acumulación de beneficio para las empresas. Sea cual sea la actividad productiva, el equilibrio alcanzado por el mercado es el mejor posible y cualquier intervención pública lo único que hará es deteriorarlo"

Zenbat kalte ideologia honen ildotik! Merkatuen desarautzeak, besteak beste, ekonomia finantzarioaren diktadura ekarri digu urteotan, eta azken krisian ezagutzen ari garen bezala, askotan gizartearen eta ekonomia produktiboaren kaltean.

Eta horrekin batera, konstatazio bat. Jendearen ongizatearen alde egin beharko luketenak neoliberalismoaren morroi bihurtu dira, interes pribatuen zerbitzaria... Ez da kasualitatea hainbeste politikari enpresa pribatuetatik deituta izatea. Ere batean eta bestean nagusi beraren morroi agertzen direlako.

†

***Beraz, lehenengo konklusio bat:
gehiengoaren ongizatea babestu beharko luketen instituzioak
jazarpen autoritario handi bat ari dira bultzatzen,
botere ekonomikoen mesederako***

Europar Batasuna]

Europa merkatu gisa ari da antolatzen. Horretarako demagogiari jotea behar-beharrezkoa da, eztabaidaren kalterako. Baina jendea konturatzen hasia da. Irlandan, adibidez, jendeak ezetz esan dio Lisboako tratatuari. Frantzia eta Holandak konstituzioarekin egin zuten bezala.

Baina merkaturako bokazioa nagusia da. Hortxe daude Auzitegitik etorritako sententzia kezkagarriak: Laval, Viking, Ruffert edota Volkswagenena... Hortxe ere Bolkestein edota Itzulerari buruzko zuzentarauak...

Europaren liberal honi aurre egitea da sindikatuaren ardura. Horretan, guk sinesten dugu bestelako sindikalgintza posible dela. Posible dela jendea eta borroka antolatzea. Eta bide horretan ELAK lana egin nahi du Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioarekin eta Europako Sindikatuen Konfederazioarekin batera, erakunde honen azken kongresuaren leloari helduz: "Erasora!". Horixe da bidea: erasora pasatzea.

†

*Europara begira, bigarren hausnarketa bat:
testuingurua zaila izanik ere,
borroka antolatzea posible da, eta prest gaude*

Estatu espainiarra]

Nazioartean zein estatuan, krisiaz ari da hitz egiten. Ez dira aipatzen ordea, krisia etorri aurretik estatutik datozkigun bi elementu erabakigarriak langileen egoera ulertze aldera.

Lehenik, prekarietatearen alde egin den apustu estrukturala. Lan erreforma baten barruan kokatzen dira urteotako prekarizaziorako neurri guztiak. Esan gabe doa, lan erreforma asko estatuko sindikatuekin adostuta egin direla.

Eta denok dakite lan kontratu mota berriek edota kaleratzearen errazteak ez duela enplegurik sortzen, behin-behinekotasuna ez dela gutxitzen eta kontratazioetan dagoen iruzurra bere horretan jarraitzen duela.

Bigarren elementu estrukturala: Espainiako gobernuaren prestazio sozialak murrizten aritu da etengabe. Eta gai honen inguruan sortzen den beldurraz ere baliatu da, besteak beste, pentsio pribatuen negozioa zabaltzeko.

Bi faktore horiek -lanaren degradazioak eta babes sozialaren txikitzeak- langile jendea ziurgabetasun egoera iraunkor batean... Guk diogu langile jendeak ez duela hori merezi. Eta ez dugu onartuko.

***Beraz, hirugarren hausnarketa bat:
gizartearen babesa eta lanaren kalitatea
sindikatuaren lehentasuna behar dute izan***

Euskal Herria

Aipaturiko defizit demokratikoa begi-bistakoa da ere Euskal Herrian burutzen diren politika publikoetan.

Gizarte ereduak]

Batetik, Europako presio fiskalik txikienetakoa dago; bestetik, gastu sozialetan ere, atzeko postuetan gaude... eta hirugarrenik, aurrekontuak superabitarekin ixten dira. Politika honen xedea bikoitza da: batetik, pribatizazioen bidea zabaltzea, eta bestetik, etekin pribatuak handiagotzea. Lotsagarria, kontutan izanik nolako behar sozialak dauden.

Erakundeek pribatizazioaren alde egiten dute. Zuzenean edota zerbitzu publikoak usteltzen utzirik. Horrela, urteetan, pribatizazio berri-erarako baldintzak eta iritzi publikoa prestatzen da.

Horretarako zerga politika funtsezkoa da. Geure aburuz, Euskal Herriko agintariek eskumen fiskala lege pribatu bat bezala kudeatzen dutela, errenta handienak dituztenen pribilegioak babesteko. Hauxe da komenio eta kontzertu ekonomikoari egiten dugun balorapen nagusia.

Fiskalitatearen auzia, gainera, argigarria da oso hemengo botere estruktura ezagutzeko. Azpiegitura handiekin bezala, estatuko zein Euskal Herriko partidu nagusien adostasuna erabatekoa da.

Eta, noski, nolako fiskalitatea, halako politika soziala... Gizartearen beharrak handitu arren (osasuna, hezkuntza, dependentzia, etxebizitzaren alorrean) superabitak gora egin du.

Politika hauek egiteko behar-beharrezkoa da demokraziaren aurka egitea: parte-hartzerako mekanismoak ahulduz, neurriak propaganda-rekin estaliz, bere ordezkaritza akreditatzen dituzten sindikatuak baztertuz edota esanez sindikatuak ez duela eskubiderik politika publikoetat aritzeko.

Gogaikarria zaie gu gauza hauetaz aritzea. Eta badakigu zergatik haserretzen dira. Joxek behin esan zuen bezala, "porque les hemos pillao". Gure salaketekin ageri askoan uzten ari baikara politika hauek.

Lana handia dugu aurrean. Gero eta leku handiagoa ematen ari gatzazkio gizarte ereduaren kontuari. Hainbat kanpaina burutu dugu. Azkenekoa oso berezia izan da. Hor aritu gara eskualdez eskualde, asanbladak eginez, ikastaroak... Eta ekitaldi nazional handi bat burutu genuen Bilbon. Eta gure jendeak garbi esaten zuen: "gehiago nahi dugu".

†

***Laugarren hausnarketa konpromiso bat da:
hemendik aurrera, euskal politika publikoen eskandaluari
eman behar diogun erantzuna enpresetatik abiatuko da***

Nazio prozesua]

Sindikatu abertzalea gara. Langileen interesak defendatzea da nazio eraikuntzari egiten diogun ekarpen nagusia.

Eta sindikatua garen aldetik, politikari hurbiltzeko modu propio bat daukagu. Batetik, soberaniaren aldeko prozesuarekin gertatzen dena kezkatzen gaitu; bestetik, demokraziaren osasun egoerak ere kezkatzen gaitu; eta azkenik, giza eskubideekin gertatzen denak ere kezkatzen gaitu.

Azken urteotako politika orokorraren balantze gisa ponentziak zera dio: transbertsalitatearen ideian oinarritu bi estrategia abertzale nagusiek porrot egin dutela. Lur-jotze horren esplikazioa estatuaren jardueran bilatu behar dugu: jarduera zentralistan, antidemokratiakoan eta errepresiboan alegia. Hiru ezaugarri horietan, Espainia buru baita.

Autogobernua murrizteari ekin diote estatutik. Gogoratu besterik ez Kataluniako estatut-arena, EAEko estatutu berriaren proposamenerekin, edota Nafarroako gobernuaren osaketarekin... Nahikoak dira funtsezkoena ulertzeko: estatuak ez du onartzen Espainia ez den bestelako erabaki-esparrurik. Horrek ez du bueltarik.

Halaber, estatuaren kalitate demokratikoaren argazkia iluna da oso. Botere judizialarekin gertatzen dena ikaragarria da eta ondorioak ezagunak dira: ilegalizazioak, egunkarien itxiera, hitz egiteagatik jendea auzi-bidean jartzea...

Azkenik, alderdi errepresiboa. Ebazpen batean ere arituko gara gai honetaz. Ekar dezagun, besterik ez bada, Nazio Batuen Erakundearen Giza-Eskubideen Batzordeak esaten duena: Espainiak torturak eta tratu txarrak babesten ditu, eta presoen oinarrizko eskubideen aurka egiten du. Hala da, bai.

Horren aurrean nolakoak izan dira Hegoaldeko estrategia abertzale nagusiak?

Nazionalismo instituzionalak autogobernuaren defentsan eginikoa kritikatzeko du ponentziak. Agindutako eta ez betetako guztiak gogoratzen ditugu -konpetentziekin, estatu politikoarekin edota azken bide-orriaren inguruan-. Gainera, martxan jarritako ekimen guztietan, aldebatekotasuna nagusia izan da. Horrela salatu dugu, besteak beste, sekulako garrantzia ematen diogulako statu quo-aren eguneroko kudeaketan egiten diren aliantzei, botere ekonomikorekin egiten direnak, alegia. Orain, denak pentsarazten digu aukera neoestatutista dela indartzen ari dena, hauteskunde aurreko antzezpenak sakoneko joera hori lausotzeko balio badu ere.

ELArentzat frustrazio handia izan da, bestalde, ETAK 2007. urtean su-etena bertan behera uztea. Berriz ere bake-prozesu bat leku berean porrot egiten du: lurraldetasuna eta erabakitze eskubidea iristea jartzen baita baldintzat gatazka armatuari bukaera emateko. Guk ez dugu irteera hori sinesten, besteak beste, horretarako indar-erlazioak ez dagoelako.

Behar-beharrezkoa sufrimendua, nekea eta errepresioa besterik ez dakarren jardura armatuari amaiera ematea. Autodeterminazioaren aldeko borroka gainera daukan aukera bakarra gizartean dago. Herri ikuspegia edukita, konpromisoak hartuta, ahalik eta indar gehiago bilduz, nahi eta ahal dugunon artean.

†

***Bosgarren konklusio nagusi bat:
Lizarra-Garaziren printzipioei eutsi beharra dago
herri honen askatasunaren alde lan eginez
nahi eta ahal dugunon artean***

Iparralde]

Eta nazio eraikuntzaz ari garela, Iparralde aipatu beharra dago. Hain zuzen ere, han jende militantea dago, zer egin behar duen ondo dakiena. Laborantza Ganbararen eredugarritasuna behin baino gehiagotan aipatu dugu: militantismoa, eredu sozial alternatiboa, erakundetze prozesua, zerbitzu eraginkorra laborarientzat...

Parte-hartze instituzionalaren porrota]

Parte-hartze instituzionalaren porrota ere aipatzen du ponentziak. Zera ikasi dugu: parte-hartzearen tresnak eta arkitektura mantentzea oso funtzionala dela benetako elkarrizketa batean konpromisorik nahi ez duten eragileentzat, hots, gobernuentzat eta ugazabentzat.

Lan Harremanen Kontseilutik alde egin dugu. Aspalditik geldirik zegoen. Ugazabek ez zuten han ezer negoziatu nahi. Baina alde egin genuen patronalak lan harremanen joko-arauak apurtzen, ELAren jendea kriminalizatzen eta auzi-bidean jartzen ari zelako. Askatasun sindikalaren kontra ari direnekin aritzea ez zeukan inongo zentzurik.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordetik ere alde egin dugu. Gobernuari bost axola zaio hor egiten den ekarpena. Ugazabek, bere aldetik, ez dute ezertaz eztabaidatu nahi, AHTa dela kasu. Bestalde, gure lurralde egituraketaren poderioz, gai asko ezin dira organoan landu, fiskalitatea kasu.

Hobetuz-etik ere alde egin genuen LABekin batera, Jaurlearitzak estatuko diru-funtsak onartu zituelako bertako prestakuntza-ereduari eta araudiari muzin eginez. Helburu hori lortzeko fundazioaren joko-arauak bertan behera utzi behar izan zituzten.

Eta instituzioez ari garela, ikaragarria izan da Lehiaren Auzitegiarekin gertatu dena. Erkidegoko lau sindikatu nagusiei informazio eta dokumentazio pribatu pilo bat eskatzen zaie merkatuen igandeetako eta jaietako irekieraren aurka garatzen ari ginen kanpainaren bultzan. Onartezina da horrelako organo batek sindikatuak diziplinatu nahi izatea.

Azkenik, Herri Ekimen Legegile bat bultzatu genuen ESK eta EILA-Sekin batera. Parlamentuko mahaiak tramitea ukatu zion aho batez proposamenari. Hau da, legebiltzarraren atea itxita dago agenda politikoari ekarpen bat egin nahi diogunean.

Atal honetan ere, beraz, asko ikasi dugu: ugazabek berariazko erlazioa dutela politikoeekin, oso emankorra gainera. Eta horregatik ez dute gurekin negoziatzeko inongo beharrik. Eta gu, iruzurrari itxura demokratikoa emateko ez gaudenez, aipaturiko bidea egin dugu, eta egindakoaren ondorioak asumitu.

†

***Seigarren konklusioa erabaki bat da:
eusko jaurklaritzaren aldaera autoritarioari aurre egitea erabaki dugu***

Negoiazio kolektiboa]

Negoiazio kolektiboa da sindikatuak duen tresna inportanteena. Hortik etorriko zaigu, behar adinako indar-erlazioa eduki ezkeror, etor dakiguen guztia, eta ez beste inondik,

Gure negoziatorako lan-ildoak oso diagnostiko sinple batetik abiatzen da:

Lehenik, 15 urteotan, hazkunde ekonomiko handia ezagutu du

Bigarrenik, urte horietan, soldatapeko enplegua ere asko hazi da

Hirugarrenik, aldiz, soldaten pisua aberastasunean gutxitu egin da

Azkenik, sorturiko enplegu guztia prekariora da eta emakume, gazteak eta immigranteak dira horren biktima nagusiak

Geure aburuz, hortik abiatu beharra dago eztabaida, bestela gureak egin du. Bestelako abiapuntua esplikatzen dute, ordea, urtetik urtera estatuan berritzen den negoziazio kolektiboaren inguruko akordioak. Edota Nafarroan martxan den elkarrizketa soziala. Konzertazio erregimen honek emaitza bakarra dauka: diru-iturrien bermea. Bestelako emaitza sozialik ez dauka eta.

Ponentziak gainerako hausnarketa bat egiten du: negoziazioa ekintza sindikalaren ondorioa da. Eta ekintza hori posible dela antolakuntza eta sindikalizazioa badago hautatutako esparruan.

Zein da esparru ona? Erraza: indar-erlazio ona dugun esparrua. Eta indar-erlazio ona non dago? Organizazioa, afiliazioa eta parte-hartzea dagoen esparruan. Eta negoziazio kolektiboa bultzatzeko motorra zein da? Atal sindikala da. Atal sindikalik gabe ez dago lan-baldintzak hobetzeko ekintza sindikalik.

Esaten dugun hau ez da teoria hutsa. Azken urteotako eskarmentutik etorritakoa baita.

Urteotan ontzat eman ditugun negoziazio kolektibo guztietan honako ezaugarri hauek bete dira: atal sindikal antolatua, enpresa sindikalizatua, afiliatuen eta plantilla osoaren parte-hartzea, beharren eta edukien zehaztea, eta harreman estua federazio-arduradunarekin.

Osagarri horiek ahalbidetzen dute atal sindikalak bere agenda propioa edukitzea. Organizaziorik gabe ugazabek jartzen baitigute agenda. Zer dela eta, bestela, hainbat enpresetan ezagutzen ari garen lan-batzordeen ugaltzea? Horien helburua delegatuen denbora alferrik galtzea besterik ez da, sindikalizazio lanean aritu ez daitezzen.

Eta negoziazioaz ari garela, aliantzei buruz hitz egin beharra daukagu, indar-erlazioaren osagai garrantzitsua direlako. Ahal den guztia egingo dugu aurrerantzean ere itun horiek posible izateko, beti ere, edukiei lehentasuna emanez; gehiengoaren errespetutik abiatu eta gatazkari aurretik uko egin gabe. Elementu horiek derrigorrezkoak iruditzen zaizkigu. Horiek ezean, patronalak neurria hartuta baikauzka.

Bigarren puntuari dagokionez, gehiengoaren errespetua alegia, esan behar dugu guretzako erabatekoa dela: gutxieneko akordioak sinatzea aliantzen aurkako dinamika da, langileek agindutako ordezkari-tzari muzin egitea da, antidemokratikoa da, eraginkortasunaren aurkakoa da, eta okerreana dena, abantaila ematen dio aurkakoari.

Gu, ELA, ez gaude beraz arazo hori erlatibizatzen. Oinarrizko araudi hori, gehiengoaren errespetuarena alegia, ez da negoziagarria. Síndikatuen arteko gutxieneko leialtasunaren oinarria da, eta hortik abiatu daitezke gainerako akordioak. Oinarri hori ezean ez dago elkargunerik. Elkartzeko nor bere burua babestu, mugatu, diziplinatu behar du, bestela jai dago.

†

*Negoiazioa egiteko indarra behar delako,
hona gure zazpigarren konklusioa:
benetako metaketa interbentzio eredu antzekoak
dituzten sindikatuen arteko batasunetik dator,
eta ez sigla asko pilatzetik*

Antolakuntza]

Dagoeneko esan dugu antolakuntzari buruz esan daitekeen gauzarik inportanteena: esan dugu antolakuntza behar beharrezkoa dugula, eta esan dugu zertarako nahi dugu: 1) negoziazio kolektiboa egiteko; 2) gizarte justuago baten alde egiteko, 3) eta Euskal Herriaren askapenerako prozesuan indarra egiteko.

Sindikatuaren antolakuntza-lanaren aldeko hautuarekin batera honako gauza hauek aipatu beharra dago.

Lehenik, gero eta militante gehiago behar dugula, baina gero eta prestatuago ere bai. Formazioa ez da zentzu honetan ilustrazio teoriko eta hutsal bat... Han esperientziak elkar trukutzen dira, diagnostikoak konpartitu eta proposamenak egiten dira... Modu horretan kolektiboak bizitakoari zukua ateratzen dio, eta barne-kohesioa eta gure jendearen militantziaren mesederako da.

Bigarrena: arduradun politikoak behar ditugu militantzia animatzeko, sustatzeko, elikatzeke... Koadro horien ardura nagusia lan-taldeak dinamizatzea da, delegatuekin harreman estuak landu, planak egiten eta betetzen lagundu... Enpresa eta sektoreetako agendaren ardura hartzen duten jendea.

Hirugarrena: antolakunde eta organo errealak behar ditugu eskualde eta federazioetan. Azken urteotan giza baliabideen hazkuntza eza-gutu dugu. Ponentziak dio, hori horrela izanik, dagoeneko aukerak baditugula atal sindikalekin lan sistematiko bat burutzeko. Horixe da Lanera planaren xede bakarra, eta gure egiteko nagusia.

Laugarrena: atal sindikala. Esan dugu lehenago: ez dago sindikalgin-tzarik atal sindikalik gabe. Hauek bizirik badaude, jendearekin lana egiten badute, negoziazioa bultzatzen badute, konfederazioaren ho-tsa baldin badira enpresan, orduan da posible gure proiektua. Errei-bindikatiboa ez den sindikalgintza agian bizirik iraun daiteke atal sin-dikalik gabe: gurea ez ordea.

Bosgarrena. Organizazio-lana, antolakuntza-lanak tresnak eta lagun-tzak behar ditu konfederaziotik. Inork ez du hau zalantzan jartzen noski. Logikoa ematen du. Baina nik azpimarratu nahi dut ponentzia-ren ildoari jarraituz aurkezpen honetan. Argi eduki behar dugu: kabi-neteak, areak, zerbitzu juridikoak, departamenduak, fundazioa... den-denak, konfederazioaren tresnak dira ekintza sindikalerako. Tresna horiek ez dira ilustraziorako tresnak, edota ez dakit zer nolako "or-dezkapen" lanerako tresnak... Konfederazioaren tresna guztiak ekin-tza sindikalerako tresnak dira.

Seigarren, eta azkenik, Antolakuntza Plana, Lanera Plana. Egitasmo honekin lan esparruak, helburuak eta ebaluaketa sistemak finkatu nahi izan ditugu. Urtebeteko bizia dauka dagoeneko. Ponentziak ho-nen balorazioa egin du. Plana ikaragarri ari zaigu laguntzen dugun an-tolakuntzaren gabeziak eta aukerak aztertzeke eta ikasteko.

Ez dugu inoiz izan egun dugun antolakuntzaren diagnostikoa. Eta hori oso pozgarria da. Inork ez dezala pentsa, beraz, hamabi hilabete hauetan ez dugula gauza handirik egin. Ez da horrela izan. Lan itzela daukagu aurrean, erronka handiak, ez dugulako beldurrik eduki diag-nostiko zuzen bat eta sakon bat egiteko. Eta hori ez du edonork egi-ten. Guk egin dugu. Emaitza kolektiboa da eta harro egon behar dugu.

Hortik aurrera, nahi duzuen guztia, edo hobeto esanda, antolakun-tzari dagokionez: negoziazioa, afiliazioa, militanteen berritzea. Ez gara zenbakiez ari: jendeaz, eta jendearen bizi-baldintzaz ari gara.

Adibide on asko ditugu. "Sindikalgintza klasikoaren eta korrektoaren" eskuliburuak dio badaudela hainbat esparru sindikalizatu ezinak dire-nak: hala nola, enpresa txikiak, azpi-kontratak, zentru anitzeko en-presak... Hori dio liburuak, baina eskuliburu horri gure jendea su ema-ten ari zaio aspalditxotik. Adibide on horiei eutsi behar diogu. Buka-tzeko, ba aipatuko dut: Garbikuntzako berrogei emakume-langile baino gehiago ari dira, duten ordu-kreditu txikiarekin, bere lankideak eta bere lan-zentro guztiak bisitatzen sistematikoki, arduradun poli-tiko baten zuzendaritza- eta animazio-pean.

†

***Eredu on batetik abiatzen da gure azkeneko, zortzigarren, konklusioa:
hasieran aipatzen genuen borroka antolatzea posible da
atal sindikalak antolatuta baldin badaude,
horixe da gure erronka***

Amaitzeko]

Gu ez gaude, beraz, etsipenerako. Langile jendea antolatzea posible dela sinesten dugu. Horregatik gaude hemen. Borroka posible dela sinesten dugulako. Gure jendea sinesten dugulako.

Asko dugu esateko. Gehiago egiteko. Gure herriaren eraikuntzan langileok zer esan eta zer egin handia dugu eta. Lortuko dugu, langileekin!